

610/2015 EBAZPENA APirilAREN 8koa, ZUZENDARI GERENTEARENA, EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESiko ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA KATEGORIAN ZERBITZU-EGINKIZUNETAKO ZERRENDA BERRIAK OSATZEKO EPEA IREKITZEN DUENA, OSAKIDETZAKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN 2011ko MAIATZAREN 9ko AKORDIOAK EZARRITAKOAREN ARABERA.

Betekizunak: (Eskabideak aurkezteko epeko azken egunean bete behar dira)

1.- **Kategoria/lanpostu funtzional berean, karrerako funtzionarioa, estatutarioa edo lan-kontratu pertsonal finkoa izatea** Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Estatuko Osasun Sistemaren erakunde sanitarioetan.

2.- **Zerbitzu aktiboan egotea eta eskabidea aurkeztea interesdunak jabetzako edo behin-behineko atxikipeneko lanpostua ez daukan beste zerbitzu-erakunde baterako.**

Baremazioa:

1. Egindako zerbitzuak, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketako deialdiaren oinarrien arabera, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak ekainaren 20ko 795/2012 Ebazpenaren bidez deitua (EHAA: 2012/09/05). Eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte egindako zerbitzuak zenbatuko dira.

2. Euskararen ezagutzak, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak xedatutako irizpideen arabera.

Eskabideak non eta noiz aurkeztu:

- Interesdunek eskabideko datu pertsonal guztiak bete eta EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidaliko behar du (Gurutzetako Plaza 12 48903 Barakaldo).
- Honako hauek aurkeztu behar dituzte: azken destino-jabetzearen fotokopia, Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuen ziurtagiriak baldin eta Giza Baliabideetako SAP kudeaketa-sistema agertzen ez badira, eta, hala behar denean, hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea.
- Aurkezteko epea **2015eko apirilaren 10etik maiatzaren 4ra** izango da, biak barne (20 egun baliadun).

Balorazio-batzordea:

- Balorazio-batzordeak behin-behineko zerrenda onartu eta Zuzendaritza-Gerentziara helaraziko du Ebazpen baten bidez, EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESiko iragarki-tauletan eta Osakidetzako web orrian argitara eman dezan. Ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkez daitezke, argitaratzen den biharamunetik hamar egun baliaduneko epean.
- Erreklamazioak aztertu ondoren, Balorazio-batzordeak behin betiko zerrenda onartu eta Zuzendaritza-Gerentziara helaraziko du Ebazpen baten bidez, EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESiko iragarki-tauletan eta Osakidetzako web orrian argitara eman dezan. Ebazpen horren aurka, gorako errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, argitaratzen den biharamunetik hilabeteko epean.
- Zerrenda berriak aurreko deialdietatik eratorritakoak ordezkatzeko ditu.

Behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, zerrenda zabalik geratuko da iraunkorki, eta Akordioak zehaztutakoaren arabera eguneratuko da.

RESOLUCIÓN N°610/2015 DE 8 DE ABRIL DEL DIRECTOR-GERENTE POR LA QUE SE PROCEDE A LA APERTURA DEL PLAZO PARA LA CONFECCIÓN DE NUEVAS LISTAS DE COMISIONES DE SERVICIOS DE LA CATEGORÍA DE TÉCNICO ESPECIALISTA RADIOTERAPIA DE LA OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES CONFORME AL ACUERDO DE 9 DE MAYO DE 2011, DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE OSAKIDETZA .

Requisitos: (Deberán reunirse al último día de plazo de presentación de solicitudes).

1. Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de servicios de Osakidetza o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de que se trate

2. Estar en servicio activo y efectuar solicitud para la cobertura de puestos en Organización de servicios distinta de la que el/la interesado/a tenga plaza en propiedad o se encuentre adscrito por reintegro provisional al servicio activo

Baremación:

1. Servicios prestados, en los términos de las bases de convocatoria del último concurso de traslados de esta categoría convocado por Resolución 795/2012, de 20 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud (BOPV: 05/09/2012). Se computará el tiempo de servicios reconocidos hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

2. Conocimientos de euskera de conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 67/2003 de 18 de marzo de normalización del uso de euskera en Osakidetza.

Presentación de Solicitudes y Plazo:

- Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales a la Dirección de Personal de OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES (Plaza Cruces, 12 48903-Barakaldo).
- Deberán aportar: fotocopias de la toma de posesión del último destino, Certificados de servicios prestados fuera de Osakidetza que no consten en el sistema de gestión de RRHH de SAP y acreditación del perfil lingüístico en su caso.
- El plazo de presentación será desde el día **10 de abril al 4 de mayo (inclusive) de 2015** (20 días hábiles).

Comisión de valoración:

- La Comisión de valoración aprobará y elevará a la Dirección Gerencia el listado provisional para su publicación mediante Resolución, en los tablones de anuncios de la OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES y en la pag.web de Osakidetza. Contra esta Resolución podrá presentarse reclamación en el plazo de diez días hábiles a contar desde el día siguiente al de su publicación.
- Examinadas las reclamaciones, la Comisión de valoración aprobará y elevará a la Dirección Gerencia de la OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES el listado definitivo para su publicación, mediante resolución, en los tablones de anuncios de la OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES y en la página web de Osakidetza. Contra esta Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de 1 mes a contar desde el día siguiente a su publicación.
- El nuevo listado sustituye a los derivados de convocatorias anteriores.

Publicado el listado definitivo, la lista estará abierta permanentemente, actualizándose conforme a lo establecido en el Acuerdo.



Osakidetza
Gurutzetan, 2015eko apirilaren 8an
Cruces, 8 de abril de 2015

Iz. / Fdo: **MAITANE ARRIZABALAGA CALZACORTA**
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES
PERTSONAL ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

PERTSONAL-ZUZENDARIA / DIRECTORA DE PERSONAL
Zuzendari Gerentearen 02/2015 Ebazpenak emandako eskuordetzez baliaturik
Por delegación de resolución N° 02/2015 del Director Gerente

IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI TAULETAN JARRIKO DA 2015eko APirilAREN 9an
PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DIA 9 DE ABRIL 2015



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD